

# AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



## AOLKU-EMOILLEA

Togo'koa dan ipuin edo alegi onek aolku-emoille txarren edo euren onurea, gure gogo ona orretarako artuta, billatzen daben aolkularien arriskua gogoratzen dausku. Ez da naiko aolkua ona izatea, nondik datorren eta zelako asmoagaz emona dan be jakin bear da.

Nastatzaille bat azokara joaten zan, eroskiak erosi eta gero bere etxera, bide-sari bagerik eroatea billatzen eban.

Bein baten buztin-lanez beteriko kutxa bat erosi eban, aurkitu eban eroale bat eta esan eutson diruz ordaindu bagerik, bizitza guztirako onak izango jakozan iru aolku emongo eutsozala.

Eroaleak, ori zer izango zan jakin-gurean, onartu eban itun ori, eta uste eban dirua beste batzuk be emongo eutsoela.

Orrelan ba, artu eban lepoan kutxa eta asi eban bidea. Andik laster, aztuna zala uste izanik, esan eutson nastatzailleari lenengo aolkua emoteko.

“Iñok esaten ba’dautzu joputza ohea dala askatasuna baiño, ez sinistu”

Orduan konturatu zan gizon arek bera iruzurtzea nai ebala, baiña aurrera jarraitu eban beste aolkua be entzuteko gogoagaz.

Geroago, eta indarrak artzen ebazan artean, bigarren aolkua eskatu eutson. Nastatzailleak erantzun eutson:

“Iñoz esaten ba’dautzu txirotasuna aberastasuna baiño ohea dala, zuk ez sinistu”.

Asarretu egin za eroaillea, gauza orreik lendik be ba-ekizalako, baiña etxera eltzen egozan eta irugarren aolkua eskatu eutson. Nastatzailleak erantzun eutson:

“Iñok esaten ba’dautzu gosea dala ohea asea baiño, zuk ez sinistu”.

Au larregia zan izarditan eta arnasea artu-eziñik joian eroalearentzat. Aspertuta, bat-batean utzitu eban kutxea eta zaratatsu jausi zan lurrera. Bere izerdia onuratzen ebanari esan eutson:

“Iñok esaten ba-dautzu buztinezko zerbait osorik dagoala, zuk ez sinistu.

Bere onerako aolku asko emoten dauana, ez izan zalantzarik, ez da iñoz be egiaren laguna.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek